

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTARONGO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2020ko udal errolda jendaurrean jartzea eta ordainagiriak kobratzeko moduan jartzea

Behin osaturik trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko 2020ko udal zergaren errolda, 2020ko martxoaren 11ko osoko bilkuran onetsia izan da.

Errolda jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik kontaktzen hasita, eragindako zergadunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

Interesdunek Lantarongo Udalaren bulegoetan (Ayuntamiento kalea, 2. Komunioi) aztertu ahal izango dituzte agiriak, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Zerga erroldak jendaurrean jartzean, haiek osatzen dituzten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da.

Jendaurreko epe hori igaro eta erreklamaziorik egin ez bada, errolda behin betiko onartutzat joko da, eta ordainagiriak kobratzeko moduan jarriko dira, borondatezko epean, 2020ko apirilaren 24tik ekainaren 26ra, biak barne, astelehenetik ostiralera, bulego orduetan. Erreklamaziorik aurkezten bada, udalak ebatziko ditu horiek.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko ekainaren 12an kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutxatan helbideratu ez duten zergadunek udal bulegoetan ordaindu beharko dute borondatezko epean.

Banketxeetan helbideratutako ordainagiriak: Udalak izapidetuko du ordainketa. Zergadunei jakinarazten zaie ezen, ordainketen banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada, Lantarongo Udalean izapidetuko direla.

Epe hori igarota, 2020ko ekainaren 29tik aurrera betearazte aldia hasiko da eta errekarquak (gehienez, ehuneko 20), premiamendu murriztukoak eta premiamendu arruntekoak ordainduko dira, Arabako zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Eta hori publiko egiten da, denek jakin dezaten.

Komunioi, 2020ko martxoaren 12a

Alkatea

JAVIER URIARTE JAIRO